



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urtarrilaren 15ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita biam, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 18an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- INSTANTZIAK

2.- G.F.A.B.A.D.k, GI-4271 Lasaoko luzapena errepideako 0,445 eta 1,787 kpen artean, drainatze sarea hobetzeko proiektua aurkezten du. Erabaki da berri ematea.

3.- M^aC.A.S.ri, Mardubidea 5 eraikinean leihoak eta atea aldatzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

4.- J.L.E.A.k, Arroabeko Artzubia aldea ibardiaren berreskuperatze eta hobetze lanen azaroko eta abenduko hilabetei dagozkion kamioi erregistroa eta planoak jaso izanaren adierazpena egitea.

5.- J.A.O.k, Aizarnako 5.poligonoko 12.partzelan nekazal tresnak gordetzeko borda egiteko obretako udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea aurkezturiko bordaren dimentsioak ez direla onargarriak.

6.- A.P.V.i Arroaerrekako bidea 1 eraikineko teilatua eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

7.- Imara Ingeniaritzak, V.L.ren izenean, Iraetako K. etxeko teilatua eraberritu ondoren obra amaierako ziurtagiria eta dokumentazioa aurkeztu du. Erabaki da aurkeztutako dokumentazioa onartzea.

8.- Imara Ingeniaritzak, V.L.ren izenean, Iraetako K. etxeko forjatuen eraikuntzaren legeztatze proiektua aurkezten du. Erabaki da udal teknikariek bisita egingo dutela etxebizitzara, zein obra egin diren egiaztatzeko.

9.- A.A.B.ri, San Isidro kalea 16 eraikineko fatxada konpontzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

10.- J.R.L.U. eta beste bat S.C.ri, A.ko G. baserriko ukuluan aldaketa batzuk egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

11.- F.Mtez.de P.ri San Isidro kalea 14 2C etxebizitzako balkoiko barandila aldatzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

12.- I.M.Z.k, kaleetako argiteri eskaxaren inguruko kexa aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea Zestoako Udallerri guztiko argiteri publikoa Led sistemara ¹pasa dela, eta aldaketa hau egin ondoren, udala kalez-kale azterketak egiten ari dela zuzenketak egin behar diren guneak identifikatu eta

beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

13.-J.E.E.k, Zubimusu kaleko eta orohar, herriko aparkaleku eskasiaren inguruko kexa aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea Arozena Hotelean pelikula grabatzen ari zirelako erreserbatu zirela 3 egunetan zenbait aparkaleku, gertutasuna behar zutela argudiatu zutelako. Udalak erabaki hau hartu zuen egun puntualak zirelako eta aparkatzeko arazoak dituztenentzat Ekaingo aparkalekua erabiltzea baliagarria ikusten zelako.

14.- K.M.U.k, abenduaren 18an Zubimusu kalea 7an duen garaje kanpoan furgoneta gaixki aparkatuta zegoela dio, nahiz eta badoa eta marra horia egon. Kotxea garajetik ateratzean markatu egin zuela eta behingoz irtenbide bat aurkitzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Hirigintza Batzordeko batzordeburua udaltzain zerbitzuarekin bilduko dela Zubimusu kalean ematen diren arazoei ahalik eta konponbide azkarrena emateko.

15.- Idiazpi auzunea 6ko bizilagunek, argiztapen eskasaren inguruko kexa aurkezten dute, eta portale parean foko bat ipintzeko eskaera egiten dute. Erabaki da jakinaraztea Zestoako Udalerrri guztiko argiteri publikoa Led sistemara pasa dela, eta aldaketa hau egin ondoren, udala kalez-kale azterketak egiten ari dela zuzenketak egin behar diren guneak identifikatu eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

16.- A.A.O.k, Alkartetxe aurrean dagoen zebra-bidearen egoera txarraren inguruko idatzia aurkezten du. Eta Arteaga auzora sartzeko edo handik irteteko bidegurutzearen ingurukoa ere bai. Erabaki da jakinaraztea Alkartetxe aurrean dagoen zebra-bidea urtarrilaren 16an, asteazkenan margotzea aurreikusten dela eta GI-631 errepidearen gestioa Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide sailari dagokiola.

17.-Bainuetxeko errepidea 3ko bizilagunak, etxe hori ez denez inoiz baserria izan, landa-lur kategorizazioa zuzentzea eskatzen dute. Erabaki da jakinaraztea gaur egun indarrean dauden Zestoako Arau Subsidiarioetan Bainuetxeko errepidea 3 zk.an dagoen etxebizitza landa-lur eremuan kokaturik dagoela adierazten dela.

18.- D.L.G.ek, 2016 urtean Movistarrekoak baimenik gabe bere baserrian sartu zirela eta, Movistar fibra optikaren kontra jarri duen salaketaren inguruko idatzia aurkezten du. Erabaki da salaketa hau Movistarri jakinaraztea, lehenbailehen negoziazio bidez irtenbide bat ematea proposatzea eta baserriaren protokoloaren gaia proposatzea eta gogoraraztea enpresei lurjabearen baimena beharrezkoa dela.

19.- M.C.A.I. eta B.A.k, herriko eskolan ondoan Udalak eta beraiek dituzten lurren arteko mugarriak bereiztea eta finkatzea eskatzen dute. Udalak erabaki du mugaketa akta sinatzea.

2.20.- L.A.I.k, argiteriaren inguruan aurkeztu zuen kexaren ondorioz, Udalak neurriak hartuko zituela erantzun zion. Oraindik arazoa bere horretan dagoela eta azalpen bat ematea eskatzen du. Erabaki da gogoraraztea telefonoz Toribio Altzaga 12 eta 24 zk.en artean argiteri publikoan egingo diren aldaketen berri eman zitzaiola, Toribio Altzaga 12 zk.an farola berri bat jarriko dela, Toribio Altzaga 20 zk.aren aurrean dagoen bakuluari farola jarriko zaiola eta Toribio Altzaga 22 eta 24 zk.en artean farola berri bat jarriko dela.

2.21.- M.U.E.k, Arteaga auzunea 4, 1.ezkerra etxebizitzako bi tabike botatzeko obra lizentzia eskatzen du. Baimena ematea erabakia da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.22.- J.O.A.k, Aizarnako Ostolaza baserriko teilatua eraberritzeko obretako baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.23.-E.J.I. eta L.P.S.k, Gainza Forge S.lri indusketa lanak egiteko, salbuespenaren aplikagarritasun adieraztako ebazpena igortzen du. Ebazpenaren berri eman da.

2.24.- A.A.I.k, Artzubialdeko betelanak direla-eta, beraiek erabiltzen duten bidea ezin dela erabili azaldu eta bide hori irekitzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea 1996tik Artzubialdeko betelenari udalak emandako jarduera baimen eta bestelako jakinarazpenetan betelaneetik pasatzen den bide horri dagokion aipamena errepikatu izan dela behin eta berriz. Jarraipen modura, J.L.E.A.ri aipamen hori

gogoraraztea proposatzen da.

2.25.- I.S.I.k, T.A.ko bizilagunen izenean, 2019ko urtarrilaren 2ko 22:30ean, A. enpresatik izugarrizko zarata ateratzen zela azaltzen du (85 db). Erabaki da jakinaraztea A. SL enpresa jarduera baimena tramitatzen ari dela Zestoako Udalean. Tramitazio prozedura honen barnean, soinu neurketak eskatuko zaizkio A. SL enpresari, enpresa akreditatu batek eginak, eta makinaria %100 martxan dutela.

2.26.- I.S.I.k, T.A.ko bizilagunen izenean Aditek S.L. enpresan baimenik gabe obretan ari direla eta Udalari neurriak hartzea eskatzen dio. Erabaki da jakinaraztea abenduaren 29an istripu bat izan zela A. SL enpresan barruko gruarekin eta eremu publikora bideraturik dagoen fatxadaren zatia zintzilik geratu zen. Ondorioz, zintzilik zegoen zatia kentzeko eskatu zion udalak A.SL enpresari. Udalak ez du obra baimenik eman.

2.27.- Argiteria publikoa gestionatzen duen Tecuni enpresak, argiteria Led sistemara aldatu ondoren, sortu diren puntu ilunak argitzeko 21 aurrekontu aurkeztu ditu. Aurrekontuak guztira 41.838,33 €-tako (Bez barne) gastua aurreikusten dute. Erabaki da Tecuni enpresak puntu ilunak argitzeko aurkeztu dituen 21 aurrekontuak onartzea. Guztira 41.838,33 € (BEZ barne).

2.28.- E.E.S.L.k, argiteria Led sistemara aldatu ondoren, sortu diren puntu ilunak argitzeko egin beharreko obra zibilarren aurrekontua aurkeztu du. Guztira 4.290,10 € (BEZ barne). Aurrekontua onartzea erabaki da.

2.29) Ibañarrietako Auzo Elkarteko eraikinaren interes publiko deklarazioa eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari. Erabaki da Ibañarrietako Auzo Elkarteko eraikinari interes publikoko deklarazioa egiteko eskaera egitea Gipuzkoako Foru Aldundiari. Eskaerari kokapen plano eta eraikinaren ezaugarriak gehituko zaizkio.

2.30.- J.L.A.k, "Proyecto refundido de la recuperación y mejora de la vaguada Artzubi-aldea" aurkezten du. Erabaki da betelana baimentzeko tramitazioari ekitea, jarduera abian jartzeko aurretiazko komunikazioaren dokumentazioa ontzat ematea eta betelana egiteagatik dagokion zerga (ICIO) eta, herri bideren bat erabiliko balu, udal jabetzako bideen erabilera bereziko ordenantza ezartzea.

2.3.- I.A.S.k, Arroagoiko M. baserriaren ondoan ukuilua egiteko proiektua aurkezten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

3.- GALDERA ETA ERREGUAK

3.1) A.E.Z.k, M. tabernako titularitate aldaketa egitea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea 1997ko ekainaren 10ean Zestoako Udalak T.A.G.ri Erdikalea 8 zk.an (M. taberna) irekitzeko baimena eman ziola, honako baldintzei lotuta:

- Hasierako proiektuan aurreikusten ez zen Portale kale aldeko atea ixtea.
- Azpiegituren inguruko ziurtagiriak aurkeztea.

Beraz, titularitate aldaketa onartu ahal izateko, baldintza horiek bete beharko dira.

3.2) L. baserriko lursailetan zezen plaza baten instalazioa. 2018 urtearen amaieran zezen plaza formatuko instalazio bat jarri zen . baserriko lursailetan, udal baimenik gabe. Zezen plazaren instalazioa legeztatzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da udalean:

- Jardueraren ezaugarriak zehazten diren memoria.
- Instalazioaren dimentsioak eta ezaugarriak zehazten diren planoak.

3.3) Mardubidea 5 zk.aren partzelan dagoen txabola. MAK kontsulta egin du, noiz amaitzen den legeztatzeko dokumentazioa aurkezteko epea. Espedientean begiratuko da.

3. Batzorde informatiboen bileren aktak

2018ko abenduaren 18an, Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.
2018ko abenduaren 13an, Auzoak eta Baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.
2018ko abenduaren 20an, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

4.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako Ebazpenen berri eman da:

- * 239 zk, Batela 1991 SL enpresak Sansinenea industrigunean eraiki duen nabearen obra amaiera dokumentazioa ontzat eman eta jarduera baimena ematen dira.
- * 240 zk, Arroabeko eskola berriaren inguruko urbanizazio obren segurtasun eta osasun planaren onarpena.
- * 241 zk, Zestoako Udalean arkitektu aholkulari bat kontratatzeko baldintza administratibo onarpena.
- * 242 zk, L.A.Ma.i behin-behineko kontratua egitea etxez-etxeke langileen oporrak amaitu arte.
- * 243 zk, Karmengo Amaren errepidea 9 1B etxebizita bitan egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioaren berri ematea.
- * 244 zk, Karmengo Amaren errepidea 12 eraikineko fatxada eraberritzeko obretako baimena ematea.
- * 245 zk, I.P.U.ri behin-behineko kontratuta egitea Gaztelekuan begirale bezala aritzeko abenduaren 27tik urtarrilaren 4ra.
- * 1 zk, J.M.O.U. jauna bitarteko funtzionario izendatzea, brigadako peoi lanpostuan aritzeko, urtarrilaren 1etik abenduaren 31era.
- * 2 zk, Leire Abanzabalegui Aranguren anderearekin Udalak duen kontratua amaitutzat ematea 2019ko urtarrilaren 4ko datarekin.
- * 3 zk, N.O.Ai. bitarteko funtzionario izendatzea gizarte langile bezala oposaketak amaitu arte.
- * 4 zk, Zestoako Herri Eskolako eraikin nagusian segurtasun baldintzak hobetzeko kanpoko sarrerako argiteria berritzeko, Udal Zerbitzu Teknikoek landutako egitasmoa onartzea.
- * 5 zk, M. I. I.ri lanaldiaren % 33,33ko murrizketa onartzea umeen zaintzagatik.

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

- Hurrengo Tokiko Gobernu Batzordean aztertuko dira.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Ez dago.

Ander Cestona Unanue
Idazkaria,

O.e
Alkateak,